

XXI EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria

Arropa Zuria

IÑAKI CID LARREA

2023

*IÑIGOk kamiseta txuri bat ateratzen du garbigailutik.
Kamisetak orban bat du erdi-erdian. Amorru handiz orbana
igurzten du. Bertan jarraitzen du. Sakelekoa hartzen du eta
AMARI deitzen dio.*

AMA_: Hara! Hemen da asteroko deia. Zer moduz bihotza?

IÑIGO_: *(Etsita)* Gaizki! Aurreko astean erosi nuen kamisetak
sekulako orbana du eta ez dut kentzerik lortu. Denetarik
probatu dut.

AMA_: Ez zenion talko hautsik jarri ala?

IÑIGO_: Ba ez.

AMA_: Baina ondo igurtzi zenuen garbigailuan sartu baino
lehen?

IÑIGO_: Bai, hori bai.

AMA_: Zerekin?

IÑIGO_: Zerekin ba? Xaboiarekin.

AMA_: Ozpinarekin probatu.

IÑIGO_: Bai, noski! Olio orbanaren gainean ozpina eta gatz
pixka bat ere botatzen badiot zuk uste kamiseta
entsaladan jaterik izango dudala?

AMA_: Ba agian horrela zertxo bait gizenduko zinateke. Oso
argal zaude seme.

IÑIGO_: Ama!

AMA_: Baduzu *Volvonerik*?

IÑIGO_: Ezin dut usain hori jasan.

AMA_: Zeinen sentsiblea zaren... Ba ez dakit... Betiko
lixibarekin probatu.

IÑIGO_: Kamiseta izorratuko du. Zuk zer erabiltzen zenuen?

*AMAK kamiseta eskuetatik kenduko dio eta garbitzen hasiko da.
Sakelekoa sorbaldarekin belarrian eusten du.*

AMA_: Lehenik eta behin talko hautsak, horrek olioa xurgatzen du. Utzi tarte batez efektua egian dezan. Gero ozpina... IÑIGO_: Zer egiten dio ozpinak?

AMA_: Ez dakit! Ozpindu. Zu bezala. Gero *KH siete*, ondo-ondo igurtzi, fuerte, amorruearekin, izorra dadila orban zikin hori. Eta azkenik garbigailura, 60 gradutan, xaboi onenarekin, gero! Ez erosi *marcas blancas*. Beste gauza batzuetan bai, baina garbiketarekin *primeras marcas*. Ez izan xuhurra.

IÑIGO_: Ez naiz.

AMA_: Bai bazara. Guzti honekin ez baduzu orban hori kentzen, *chico*, erosi beste kamiseta bat.

IÑIGO_: Zerbait gehiago egiten zenuen... Ez dut gogoratzen...

AMA_: Nik dakidala ez! Amonak berdin-berdin egiten zuen eta gogoratu zeinen dotore eta elegante ibiltzen zen beti. Bueno zer moduz zabilta? (*Kamiseta bueltatuko dio*).

IÑIGO_: Betiko martxan, etxetik lanera, lanetik etxera. Ondo.

AMA_: Bueno, ziur gauza gehiago ere egingo dituzula. Ez zara geldirik geratzen eta! IÑIGO_: Geroz eta gutxiago egia esan. Ez nago oso umoretsu, badakizu...

AMA_: (*Moztu egingo dio*) Horretarako hoberena parranda on bat egitea da! Pasako zaizu. Aizu kontatu dizut lehengoan izebak deitu zidala?

IÑIGO_: Ez...

AMA_: Ba guaza da herriko etxea saldu nahi dutela. Gogoratzen etxe hura? Ederra zen bai baina tokitan zegoen... *La navarra profunda!* Ea nork pasatzen dituen han udarak, 42 gradutan aurreko astean, *ni regalado*. Total, saltzera joan direnean antza etxea ez zegoen inoren izenean! IÑIGO_: Nola?

AMA_: Ba dirudienez izebaren aitak bere garaian ez zituen paperik egin eta etxe horrek ez dauka... Nola esaten zaio?

IÑIGO_: *Padrastro?*

AMA_: Hori, *padastro*. Edo katastro? Bueno berdin dio, gauza da ezin dutela saldu. Eta ez hori bakarrik, orain etxea *kadastratu* behar dutela.

IÑIGO_: Zer?

AMA_: *Padastratu* edo hori! Paperak egin *vamos!* Begira, gure artean, ez dakizu nola poztu nintzen.

IÑIGO_: Ama!

AMA_: Aizu! Zenbatetan ibili dira bai bera eta baita osaba ere etxe hori gu guztion muturretik pasatzen? Dirutza balio zuela, ez dakit zenbat hektarea zituela, igerileku bat egingo ziotela... JA! Ba orain *ni piscina ni piscino*. Izorrai! Eta jarri paperak behar bezala. Hainbesteko kontuekin... *Anda porai!*

IÑIGOk deia esku libreetan jarri du eta sukaldatzen hasi da.

AMA_: Hor zaude?

IÑIGO_: (*Ustekabean*) Bai bai!

AMA_: Zertan ari zara?

IÑIGO_: Janaria prestatzen.

AMA_: Zer egingo duzu? Nik lehengo egunean lekak egin nituen. Ez dakizu zeinen goxoak zeunden. Badakizu beti botatzen diedala baratxuri frijitu bat. Mmmm.

IÑIGO_: Ba lekak garbitzen ari naiz! Kasualitatea!

AMA_: Garbitzen? Jesus! Gaur egun merkatuko baserritarrek garbituta eta moztuta saltzen dituzte.

IÑIGO_: Baina garestiago ziur!

AMA_: Ikusten zeinen xuhurra zaren?

IÑIGO_: Bueno, niri horrela gustatzen zait, ez daukat presarik.

AMA_: Ez duzu lanik ala?

IÑIGO_: Ez... Oraindik ez naiz bueltatu.

AMA_: Nik eta zure aitak ez genuen baja bakar bat hartu lan egin genituen 42 urteetan. Aitak 44.

IÑIGO_: Badakit ama, baina horregatik ez zarete langile hobeak. Ez zintuzten medailarik eman nik dakidala.

AMA_: Ez baina lankide guztiek ziguten estimu handia. Oraindik gurekin akordatzen dira mediku asko erresidentzian. Etxekoak ginen, badakizu. IÑIGO_: Ziur nago...

AMAK IÑIGOren janaria begiratuko du.

AMA_: Ez dizkiozu patata pare bat jarriko?

IÑIGO_: Ez.

AMA_: Ezta azenariorik ere ez? Esaten dizut ba oso argal zaudela. Lekek horrela ez dute ezer balio, gizona! Patata pare bat, zati handitan, bestela oso biguinak geratzen dira egositakoan, eta pare bat azenario.

IÑIGO_: Lekak onak badira ez diezu ezer gehiago jarri behar!

AMA_: *Un poquito de alegria* gizona! Amonak maionesa pixka batekin jaten zituen. Aitonak hori zerrikeria zela esaten zion baina behin probatuta, *ojo*, ez daude batere gaizki.

IÑIGO_: Horrela zeukan amonak ipurdi hori.

AMA_: *(Barre egingo du)* bai... *qué salada*. Tira, jarri iezaezu patata pixka bat. *(Patata bat hartuko du eta zuritzen hasiko da IÑIGOk lekak garbitzen dituen bitartean)*. Baduzu baratxuririk?

IÑIGO_: Bai, hozkailuan.

AMAK hozkailua irekiko du.

AMA_: Iñigo! Baina zer *kutxitril* da hau? Zenbat janari usteldu daukazu hemen? Ene! Begira aguakate hau! Daukaten

prezioarekin... Eta pepino hau? Gizon zahar baten zakila dirudi! Begira, eta bi aran usteldu hauek bere barrabilak!
(*Parrez lehertuko da*).

IÑIGO_: Bueno ama, esan dizut azken aldian ez nagoela bolada ona pasatzen ari.

AMA_: Ikusten dut bai, eta are bolada txarragoa pasako duzu hemengo ezer jaten baduzu! *Redio!*

IÑIGO_: Hasi baratxuria txikitzen, martxa honetan ez dut bostak arte bazkalduko.

AMA_: Eta urdaiazpiko pixka bat jartzen badiogu? Horrekin bai emango diozula zaporea lekei.

IÑIGO_: Bai, eta hirugiharra, eta pasta pixka bat, eta gazta, eta dena labera sartu eta bazkaltzera!

AMA_: Zeinen zerrikeria.

IÑIGO_: Ez daukat urdaiazpikorik ez.

AMA_: Edo agian baduzu eta ezin topatu... Hozkailu honetan batek daki zer gauza aurkitu daitezke. Irulegiko eskua ez zuten hemen topatu?

IÑIGOk hozkailuko atea itxiko du eta labana eskuan AMari sukaldatzera bueltatzeko aginduko dio. Biak barazkiak mozten. Isilunea. "Eres tu" abestia kantatzen hasiko dira biak batera, konturatu gabe.

IÑIGO_: Abesti honek beti gogorazten dit zuri. Ezin dut burutik kendu.

AMA_: Oso ona delako. Gaur egun ez dira horrelakoak egiten. Bueno Izarok agian bai. IÑIGO_: Bai, Izaro da gaur egungo Amaya Uranga, *no te digo...* AMA_: Etxea aireztatu beharko zenuke. Itxi usaina dago hemen. IÑIGO_: Hotza egiten du kanpoan.

AMA_: Otsaila da eta! Neguaren okerrena pasa da. (*leihoa irekitzera doa*).

IÑIGO_: (*labana eskuan*) Ezta okurritu ere.

AMA_: Bale, bale. Mareatzen hasten naizenean abisatuko dizut.

IÑIGO_: *Exagerada!*

AMA_: Baina seme, ateratzen al zara noiz behin etxetik?

IÑIGO_: Ez asko... Zaila da. AMA_:

Horrela ez duzu mutilik aurkituko.

IÑIGO_: Ez nago horretarako.

AMAk triste begiratuko dio.

AMA_: Eta herrira bueltatu zera?

IÑIGO_: Ez dago ezer niretzako bertan.

AMA_: Ez esan horrelakorik. Bertan beti izango duzu zure etxea. Han daude zure lagunak eta herriko jendea!

IÑIGO_: Egunen batean.

AMA_: Gustura joango nintzateke ni etxe azpiko tabernan egiten zituzten bokadilo haietako bat jatera. Zenbat botatzen ditudan faltan. Edo kroketa batzuk *sikiera*.

IÑIGO_: Zu beti prest krocketak jateko.

AMA_: Oraindik geratzen al zaizkizu nik emandakoak?

IÑIGO_: Bai, oraindik badauzkat.

AMA_: Ba atera pare bat, edo hiru. Leka hauek ez dira bazkari adina.

IÑIGO_: Ez! Gutxi geratzen dira.

AMA_: Ba egingo...

IÑIGO_: (*Moztu egingo dio*) Ez! Ez zaizkit hainbeste gustatzen.

AMA_: ZER?! BARKATU?

IÑIGO_: Ba... hori... ez zaizkidala hainbeste gustatzen eta hor dauzkadala izozkailuan hotza pasatzen.

AMA_: Ba egon zaitez lasai... *(AMAk krocketak izozkailutik ateratzera joaten da)*

IÑIGO_: Zertan ari zara?

AMA_: Krocketak zakarretara botako ditut! Nik ezin ditut jan, badakizu nire bihotzerako ez direla onak eta zuk nahi ez dituzunez...

AMA eta IÑIGO kroketa tuperra helduko dute eta tiraka hasiko dira.

IÑIGO_: Geldi! EMAN!

AMA_: Utzi! Nireak dira!

IÑIGO_: Ez! Nireak dira.

AMA_: Ez dituzu nahi eta lekua behar duzu izozkailuan! Aita berehala hasiko da perretxiko bila. IÑIGO_: EZETZ!

Kroketa tuperra ireki eta kroketa guztiak lurrera eroriko dira. IÑIGO oso penaturik krocketak lurretik biltzen hasiko da. Negarrez hasten da.

AMA_: *Jesus!* Ez zaitez horrela jarri! Krocketak besterik ez dira eta gainera ez dut uste egin ditudan hoberenak direnik. Manolik, dendakoak, ez zeukan niri gustatzen zaidan irin marka eta honek ere *marca blanca* saldu zidan. *Qué manía!* Eta *notatzen da, hombre notatzen dela...* Berak ezetz dio baina zer esango du? Horrek bere birramona salduko luke 2 euroren truke!

IÑIGOK krocketak tuperrean sartzen ditu berriro, negar batean. Tuperra besarkatzen du.

AMA_: Ez dituzu gordeko ezta? Lur nazkagarri horretan egon ondoren? Txoratu egin zara? Ekarri hona!

IÑIGO_: EZ! EZ! EZ!

AMA_: Baina zer duzu? Txoratu egin al zara?

IÑIGO_: (*negar eztulka*) Hauek direla hil baino lehen egin zenizkidan azkeneko krocketak! Eta kroketa hauek bukatzen direnean ez direla amaren kroketa gehiago egongo. Ezta amaren txipiroiak tintan, ezta amaren arroz esnea. Ez daude amaren dei gehiago eguna zer moduz joan den galdetuz. Ez daude musuak elkar ikusterakoan ezta besarkadak agurtzean. Ez daude igandeetako bazkariak. Ez daude hondartza egunak zure konpainian. Ez daude zure garbiketa trukoak arropa zuri bezain txuria gera dadin. Ez daude zure laztanak. Ez daude zure maitasun begiradak. Krocketak daude. Eta ezin ditut horiek ere galdu.

AMAK IÑIGO besarkatuko du.

AMA_: (*Sakelekoa erakutsiz*) Dei hauek dauzkazu.

IÑIGO_: Ez dira errealak. Nire buruan daude.

AMA_: Hori da hoberena. Zure buruan nagoela. Eta hori horrela izango da betirako.

IÑIGO_: Ez da nahikoa.

AMA_: Baina duzuna da, eta ez da gutxi. Bizi izan ditugun momentu guztiek zure buruan bizitzen jarraituko dute, eta ez hori bakarrik, momentu berriak sortuko dituzu bizi ditugun zati horietatik hasita. Zer axola ez dela erreal? Ondo sentiarazte zaituzte?

IÑIGO_: Mina gutxitzen dute.

AMA_: Ba heldu gogor orduan gezur polit hauei. Baina bizi ere *maitia*, bizi zure bizitza! Ezin zara hemen giltzapeturik egon.

IÑIGO_: Pixkanaka ama, pixkanaka.

AMA_: (*IÑIGOri aurpegia laztanduko dio*). Gauza bat eskatzen dizut, eta oso garrantzitsua da.

IÑIGO_: Esan.

AMA_: Kendu hautsa kroketa horiek jan baino lehen. (*Barrez*)

IÑIGO_: (*Barrez*) Ez! Hain onak ez daudela esan didazunez agian hautsak zapore gehiago emango die. (*AMA besarkatuko du*) *IÑIGOk etxeko giltzak hartuko ditu eta kalerantz abiatuko da.*

AMA_: Nora zoaz?

IÑIGO_: Urdaiazpikoa erostera. Leka hauek bestela ez dute ezer balio.

IÑIGO ateratzera doa.

AMA_: Joan baino lehen! Gaur ilargi betea omen dago.

IÑIGO_: Eta?

AMA_: Amonak zioen arropa txuria gauez zintzilikatzen bazenuen goizean are txuriagoa egoten zela. Ilargiak eta ihintzak eragina omen dute.

IÑIGO_: Hori zen! Egia da, behin kontatu zenidan! Ez nuen gogoratzen! AMA_: Antza gogoratzen zenuen...

IÑIGO AMArengana bueltatuko da eta musu bat emango dio masailean. Badoa.

AMA_: Deitu ea nola geratzen den kontatzeko.

IÑIGO_: Noski Ama, deituko zaitut. Beti.

AMA_: Agur bihotza.

IÑIGO_: Datorren astera arte. Agur.

Beltzera.